

“EGAN” eraberritua

Mikel ATXAGA

EGAN Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko Boletinarene euskarazko gehigarri eraberritua aurkeztu zen atzo Gipuzkoako Diputazioaren jauregian. 1948ko urte zailetan sortu zen aldizkariaren txanda, Koldo Mitxelena eta Joan San Martinen ondotik, talde berri batek hartu du, Luis Mari Mujika eta Gillermo Etxeberriaren ardurapean: “Mitxelena haundiaren eta Irigarai eta Arrueren eskutik zintzotasunez irekitako ildoa ez dela baztertzekoa, ez ahaztekoa, ez eta galtzekoa kontutan izanik, *Egan* urtetsuari izerdi bat txertatzeko”.

Lehengoarekin loturak hautsi gabe eta lehengoari esker oneko izanaz eraberritu nahi dute “euskal alorrean baratze apartekoa” izan den aldizkaria, “bertan gaur ezagutzen dugun olerkari, prosalari eta beste idazle anitzek parte hartu duelako”.

Hauxe da talde berriaren helburua: “Bereziki, azterketa literarioen saila gotortu nahi genuke egungo idazle eta literatur ikertzaileen leiho zabal gerta dadin, bai herri literaturan, bai literatura landuaren eta bai egungoaren aportazioen ikuspegi sakon eta hurbilagoa dezagun. Sorkuntzaz gain, itzulpenen bitartez kanpotiko poesia eta prosaren aire berriak gureganatu nahi genituzke egungo literaturaren urratsak hurbilagotik jarraitzearren. Liburuen kritika eta erreseina zatiari ere gune aparta emanen diogu euskal liburugintzaren alderik urrienetakoa hau izan delako. *Egan*-ek, dena den, aspalditik ezagutu zuen Mitxelenaren maisutza arlo honetan, zorionez”.

Egan aldizkariak, maila bat, izen bat, ongi irabaziak zituen nolana nahi hiltzen uzteko. Orain 4 urte, berrogeigarren urtea bete zuenean ere, birmoldatzeko eta indartzeko asmorik izan zuen. Eta iritsi zaio

ordua. Ekin zaio lanari. Eta berri on bat eman digute urteberriaren hasieran, alor horretako aldizkari gehiago izanik ere, aukera desberdinen arteko lehiak hobetzen baititu batzuk eta besteak.

Orain baino urte zailagoetan, orain baino laguntza eta bitarteko urriagoz eta guk baino hileta gutxiago joz egin zuten lan gure aurrekoek. Aitzakia erosoetan eta eztabaida inozoetan denborarik galdu gabe lan egiteko garaia dugu. Nor garen eta zenbat garen erakusteko garaia. Apustu hori irabazi nahi luke talde berri honek. Besteak egiten ez duenaz eta besteak ezartzen dizkigun trabez hiletak jotzea alferra baita. Literatura ona egiteko gai garen neurrian izango dute etorkizuna euskarak eta euskal literaturak. Besterenak beste, horixe da literaturgileen erantzukizuna.

Badakigu herri txiki bat garela, irakurle gutxi dituen hizkuntza dela. Aldamenetik trabak jartzen eta erdararen eremura alda gaitezen zirika ari denik ere bada. Sona piska bat duenari euskaraz aritzea alferra dela erasotzen zaio. Ezaguna ez denari; berriz, bere lanak ez duela ezer balio, euskaraz delako bakarrik argitaratzen eta laguntzen dela, alegia.

Ez da guztia urre gorria, ezta, ordea, dena zaborra ere. Ezinermanez egiten zaizkigun erasoek ez gaituzte etsiarazi behar, irmoago eta txukunago lan egitera bultzatu baizik. Batez ere kritiko euskaldunen kritika zuzena eta jantzia behar du gure literaturak, mailaz maila hobetzea nahi badugu. Horretarako beharrezkoa da "azterketa literarioen saila", talde berri honek dioen bezala, *Egan* "egungo idazle eta literatur ikertzaileen leiho zabal gerta dadin".

Euskarak arlo eta bide berri asko urratu du urteotan, literaturan, irakaskuntzan, komunikabideetan, administrazioan, itzulpengintzan eta abarretan. Kalitateari begiratzeko ordua dugu, bai mamiaren aldetik eta bai hizkuntzaren aldetik. Euskaraz egiten den guztiak ez digu balio. Euskaraz ari garelako ez dugu erdipurdikerietarako eta zabarke-riarako baimenik eta buldarik.

(1993-II-16)